



Hauspoa proiektua Hobekuntza Plana 2018-2019.ikasturtea

Elorrioko Institutua

AURKIBIDEA

1. HOBEKUNTZA PLANAREN NONDIK NORAKOAK ETA JARRAITU DUGUN EGITURAREN ZERGATIA.....3.orri.
2. SARRERA GISA.....4-5.orri
3. HOBEKUNTZA PLANA DEIALDIAREN HELBURUAK OINARRI HARTUTA:
 - a. 1.HELBURUA: Ikastetxearen kalitatea handitu.....6.orri
 - b. 2.HELBURUA: Eskola-denboren eredu berriak erabili eta ebaluatu...7.orri
 - c. 3. HELBURUA: Ikastetxearen ekitatea hobetzen lagundu.....8.orri
 - d. 4. HELBURUA: Ikasleek eskola orduetatik kanpo konpetentziak eskura ditzaten bultzatu.....9.orri
 - e. 5. HELBURUA: Emaitzen eta eskola-giroaren hobekuntza sustatu....10.orri
 - f. 6. HELBURUA: Ikasleen autonomia landu.....11.orri
4. JARDUNBIDE EGOKIEN HARITIK ELORRIKO INSTITUTUAK BULTZATUKO DITUEN LERROAK.....12.orri
5. 2018-2019.IKASTURTEAN BERRIAN-BERRI ESKAINTZEA AURREIKUSTEN DITUGUN PROPOSAMENAK.....13.orri
6. 2018-2019.IKASTURTEAN ERE ESKAINTZEA AURREIKUSTEN DITUGUN PROPOSAMENAK.....14-15.orri
7. ERANSKINA: Jarraipen Batzordeko akta.....16-19.orri

1. HOBEKUNTZA PLANAREN NONDIK NORAKOAK ETA JARRAITU DUGUN EGITURAREN ZERGATIA

Hobekuntza Plan hau egiterakoan, hiru iturri izan ditugu kontuan:

- 2018ko apirilaren 30eko EBAZPENA
- Ebazpen horretan agertzen diren deialdiaren HELBURU NAGUSIAK
- JARDUNBIDE EGOKIEN ZERRENDA

3

Hiru elementu hauei, laugarren bat ere lotu diegu, HOBEKUNTZA PLANEN EGITURAKETA alegia, eta guzti hauen loturatik irakurri behar da Elorrioko Institutuak aurkezten duen HAUSPOA proiektuaren hobekuntza Plan hau.

Planaren egituraketari lotuz eta aurkibidean agertu legez, helburu nagusi bakoitzaren lanketa egiten eta lauki itxuran – era laburrean – agertzen saiatu gara. Honetarako urrats hauek jarraitu ditugu:

- Helburu nagusi horren azpiatalak zehazten ahalegindu, hau da, zer ulertzen du Elorrioko Institutuak helburu nagusi hori planteatzen denean?
- Laukiaren egitura finkatu: zer sartu eta zer ez. Laukietan honako atalak aurkitzen dira:
 - Helburu nagusia – Ebazpenean jarritakoa –
 - Jarduerak: zer egingo dugu helburu hau lortzeko
 - Arduraduna: bakarra, nahiz eta jakin ardurak gurean partekatuak direla.
 - Baliabideak: giza nahiz bestelakoak
 - Denbora: noizko edota noiz egitea aurreikusten dugun
 - Jarraipen adierazleak: ikasturtean zehar zer egingo dugun
 - Lorpen adierazleak: ikasturte bukaeran zer lortzea espero dugun.

Honetaz gain, jardunbide egokien zerrendari erreparatu diogu eta nahiz eta HAUSPOA proiektutik haratago doazen jardunbideak diren eta ikastetxe osoa hartzen duten, egoki ikusi dugu, proiektu honetatik ere, esparru honetan Elorrioko Institutuak hartzen dituen konpromisoen dekalogo txiki bat idaztea.

Eta bukatzeko, aurreko 5 ikasturteetatik ikasiz, labu-labur zeri eusteko gogoia dugun azaltzen dugu eta baita gure eskaintza berria zein izango den ere.

2. SARRERA GISA

Elorrioko Institutuak 2013-2014.ikasturtetik aurrera proiektu pilotu honetan parte hartzen ari da. Bere garaian, HAUSPOA proiekturako lehen deialdian gure hautagaitza aurkeztu genuen eta behin onartu eta gero, egitasmo hau garatzen aritu izan gara.

2018ko apirilaren 30eko ebazpenaren bitartez, Hezkuntza Sailburuordeak, deialdi berri bat zabaldu du Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei eginez, ikastetxe publikoen barne-antolamendua berrizatzeko proiektuan parte hartzeko (HAUSPOA)

Elorrioko Institutuak, deialdiaren xedeari, bere 1.artikuluko 2.atalari erreparatuz, hau da,:

2.- Egun proiektuan parte hartzen duten 28 ikastetxeek ekimenean jarraitu nahi badute, berriro eskatu behar dute parte hartzea. Dena den, Ikuskaritzak proiektuaren ebaluazio positiboa egin baldin badio ikastetxeren bati, ebazpen honen 5.6. artikuluan adierazten den dokumentazioa soilik aurkeztu beharko du ikastetxe horrek, eskaerarekin batera. Proiektu pilotuan parte hartu eta ebaluazio positiborik lortu ez duten ikastetxeek berriro eskatu behar dute proiektuan parte hartzea, proiektuan sartu nahi duten ikastetxe berrien baldintza berberetan.

Honela bada, gure ikastetxearen eskaera proiektu honetan jarraitzeko, Ikuskaritzaren ebaluazio positiboa lortuta, ebazpen honen 4.artikuluko 6.puntuan oinarrituko da, zeinak hau dioen:

6.- Orain arte Hauspoa proiektuan parte hartu eta Ikuskaritzaren ebaluazio positiboa jaso duten ikastetxeek aurkeztu behar duten dokumentazioa:

- a) Ordezkaritza Organo Gorenaren eta/edo Eskola Kontseiluaren akta, 2015-2016 ikasturtean Hauspoa proiektuan parte hartzea onartzen duena.
- b) Hauspoa proiektua hobetzeko plana, eta, haren baitan, zehaztuta, proposatzen diren aldaketak eta haien justifikazioa, helburuen lorpena neurtzeko adierazle berriak eta ikastetxeak proiektuan barneratu beharrekoak irizten dituen gainerako alderdiak.

Beraz, Elorrioko Institutuak 2018-2019.ikasturtean HAUSPOA proiektuan parte hartzen jarraitzeko egiten duen eskaera honek deialdian agertutako helburu nagusiekin bat egiten du:

Honako hauek dira deialdi honekin lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Ikastetxeen **kalitatea** handitzea, autonomia indartuz urratzeko bikaintasunerako bidea.
- Eskola-denboren **eredu berriak** erabili eta ebaluatzea.
- Ikastetxeen **ekitatea** hobetzen laguntzea, eta horretarako, jardueren eskaintza bat egitea. Eskaintza horrek ez die kostu gehigarriak eragin behar familiei eta ez du ikastetxearen egungo zerbitzu-eskaintza desagerrarazi behar. Eskaintza horrek ekarpen bat egin behar du **ikasle guztiek hezkuntza-arrakastaren bidea urra dezaten**.
- Ikasleek, eskola-orduetatik kanpo, **konpetentziak** eskura ditzaten bultzatzea.
- Eraitzen eta bizikidetzaren **hobekuntza** sustatzea.
- **Euskeraren erabilera** bultzatzea eskola orduz kanpo.
- Ikasleen **autonomia** lantzea.

Helburu nagusiak hauek izanda, Elorrioko Institutuak HAUSPOA proiektuan orain arte egindakotik ikasiz, aipatu proiektua hobetzeko plangintza aurkezten du datorren ikasturterako, jakinda, helburu nagusi guztien lorpen maila egokia ez dela ikasturte batetik bestera lortzen eta bai ordea, ikasturtez-ikasturte norabide berean lan eginez.

Deialdiak aginduta 2018-2019.ikasturterako aurreikusiko ditugu ekintza eta jarduera zenbait, baina garbi utzita, beste denboralizazio bat – luzeagoa - ere agertuko dela gure hobekuntza planean honela izan behar dela sinesten dugulako.

Sarrera honekin bukatzeko, gure proiektu honen zutabe nagusiak berresten ditugu. Labur-labur hauek dira:

- Elorrioko Institutuan Hauspoa arratsaldeak astelehena, asteartea eta osteguna izango dira. Asteazkenetan ere ikastetxea zabalik izatea AZTERGAI IZANGO DA
- Astero arratsalde hauetan 6 ordu eskainiko ditugu. Orduetgia hauxe izango da: 15:00-17:00
- Hauspoa arratsaldeak Irailaren ---ean hasi eta maiatzaren ---n bukatuko ditugu. Guztira 2018-2019.ikasturtean 90 hauspoa-arratsalde izango ditugu eta 180 ordu gehigarri eskainiko dugu.
- Irakasle bakoitzaren dedikazio-ordua Hauspo proiektura ordu betekoa izango da.
- Klaustroak adostuta, irakasle guztiok 18 ordura egongo gara eta hauetako 17 goizean garatuko ditugu eta 18.a ordea, HAUSPOA PROIEKTUARI ESKAINIKO DIOGU.
- Elorrioko Institutuko Hezkuntza Komunitateak onartu bezala, proiektu hau IKASTETXEKO PROIEKTUA DA eta beraz, irakasle guztiek parte hartuko dute eskaintza honetan. Irakasleren batek parte hartzen ez badu, ez da izango nahi ez duelako eta bai ordea, dagoeneko 18 irakastordu dituelako.




HAUSPOA PROIEKTUA: 2018-2019.ikasturtea
HOBEKUNTZA PLANA

HELBURUAK Lehen helburua	JARDUERAK	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORA	JARRAI PEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Ikastetxearen kalitatea handitu: <ul style="list-style-type: none"> • Arreta pertsonalizatua lortu • Ikasleriaren inplikazioa indartu • Gurasoen inplikazioa handitu • Irakasleriaren arteko koordinazioa indartu • Barne eta kanpo komunikazioa landu 	Partekatutako tutoretza lantzen jarraitu	Zuzendaritza	Irakasleria	Iraila/Urria	Irakasle bakoitzari dagozkion ikasleak izendatuko zaizkio	Familiekin egin beharreko bilerak egin dira
	Familiekin bilerak adostu eta ondorioak eta laburpena INIKAN idatzi	Tutoreak	INIKAn Telefonoa e-maila,...	Ikasturtean zehar	Familiekin elkartuz eta hitz eginez ari gara	Egindako bilera guztiak INIKAN jaso
	Ikasmailako/ikastaldeko bilerak behar direnean	Ikasketa Burutza	Tutoreak Ikasleria	Ikasturtean zehar	Sortzen diren egoerak aztertzen dira eta erabakia hartzen da	Egin beharra egon bada, egin da eta beronen akta jaso da
	Proiektuak koordinatzeko ordutegian guneak zehaztu	Zuzendaritza	Kronowin Irakasleriaren ordutegiak	Iraila	Astero koordinatzaile hauek elkartzen dira	Asteroko bileren aktetan esandakoa eta hartutako erabakiak jaso
	DBH4ko ikasleak DBH1 eko ikasleen tutore bihurtu	Zuzendaritza	Ikasle bolondresak Irakasleria	Iraila Urria	DBH1 mailako ikasle guztiak dute ikasle-tutorea	Eskola Giroa hobetu da? BAI/EZ
	DBH 3ko ikasleak LH 5-6 mailetakoko ikasleei laguntzen	Zuzendaritza	Ikasle bolondresak Irakasleria	Ikasturtean zehar	Lehen Hezkuntza zuzendaritza eta tutoreekin elkartu	Gauzatu diren saioak eta irakasgaiak jaso
	HAUSPOAN gurasoen parte hartze aktiboa gehitu	Zuzendaritza	Familiak Irakasleria	Ikasturtean zehar	Ikasturte hasierako bileran bolondresak eskatu	Proiektura hurbildu diren gurasoen kopurua



HELBURUAK 2.helburua	JARDUERAK	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORA	JARRAIPIEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Eskola-denboren eredu berriak erabili eta ebaluatu: <ul style="list-style-type: none"> Orain arte dugun antolaketaren inguruko etengabeko hausnarketa bultzatu. Herriko beste eragile batzuekin sinergiak bilatu Hezkuntza Komunitatearen iritzia ezagutu: asebetetasun inkestak Besteengandik ikasi 	Hauspoa proiektuaren asebetetasun inkestak pasatu	Kalitate arduraduna	E-maila Eskutitzak Drive	Ikasturtean zehar	Asebetetasun inkestak aztertu eta birmoldatu hala behar badute	Ikasleen eta irakasleen %90ak erantzutea Gurasoen erantzun gehiago jasotzea
	Hezkuntza Komunitatearen ekarpenak kontuan izan	Zuzendaritza	E-maila Eskutitzak Drive	Ikasturtean zehar	Jasotako ekarpenekin hobekuntza txostena osatu	Hurrengo ikasturteko proiektuan kontuan izan
	Elorrio herriko hezkuntza eragileekin harremanak lantzen jarraitu: Udal biblioteka, Iturri Kultur Etxea, Zaharren egoitza, ...	Zuzendaritza	E-mailak Eskutitzak Bilerak ...	Ikasturtean zehar	Egindako ahaleginen berri emango duen txostena osatu.	Aukera ematen diguten bileretara joan HAUSPOA aberastuz joan dadin
	Proiektu hau aurrera eramaten ari diren gainontzeko ikastetxeekin elkartu eta elkarrengandik ikasi	Zuzendaritza	Sareko bilerak Binakako deiak ...	Ikasturtean zehar	Sareko bileretara joan Beste ikastetxeen proiektuak ezagutzeko ahaleginak egin	Sareko bilera guztietara joan %100 Beste proiektu batzuetatik jasotako ekarpenak
	Aurrera eramaten ari garen antolaketak berrikuntzarik behar duen ala ez erabaki	Zuzendaritza	Hezkuntza Komunitatea	Ikasturtean zehar	Gurasoen, ikasleen eta irakasleen iradokizunak jaso	Hurrengo ikasturteko proiektuan kontuan izan



HELBURUAK 3.helburua	JARDUERAK	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORA	JARRAIPIEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Ikastetxean ekitatea hobetzen lagundu: <ul style="list-style-type: none"> Ikasturtea gainditzeko premia duen ikasleriari erantzun. Ikastetxeko Baliabide guztiak ikasleen esku utzi: lubaki digitalak ekiditeko, elkarrengandik ikasteko ,... Ekimen guztietan, ikasle guztiek parte har dezaten ahalbideratu 	Errefortzu eta laguntzak jarduerak EKITATEaren ikuspegitik antolatu	Zuzendaritza	Irakasleria Gainontzeko baliabideak	Ikasturtean zehar	Errefortzu eta laguntza hauei jarraipena egin ZBAn eta Pbn	Laguntza behar izan duten %90 etorri dira
	Goi mailetako ikasleek (DBH 3-DBH4) ikasle gazteagoei laguntza emateko saioak antolatu.	Zuzendaritza	Ikasketa Burutza DBH 3 eta DBH 4ko ikasleak Beste ikasle batzuk	Ikasturtean zehar	Laguntza emateko prest daudenekin zerrenda osatu Laguntza behar dutenekin zerrenda osatu	Bide berri hau zabaldu. Gutxirekin bada ere ohitura sortuz joan
	Ikasleen irakurketaren ulermenari eta zuzentasunari begirako lantaldea osatu. Irakurketa partekatua	Ikasketa Burutza	Ikasketa Burua Irakasleria Durangoko Berritzegunea	Ikasturtean zehar	Zailtasunak dituztenekin eta laguntza eskainiko dietenekin lantaldea sortu	Lantaldea sortu da. Laguntza behar zuten ikasleek lortutako hobekuntza ezagutu
	Ikasle guztiei Guraso Elkarreak edota beste erakunde batek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eskaini	Zuzendaritza	Eskainitako tailer, ikastaroa ,... Ikasleria	Ikasturtean zehar	Ikasleriari eskaintza helarazi eta parte hartzera gonbidatu	Ikasturte bukaera arte eman diren ikastaro edo tailer kopurua. Parte hartu duten ikasleen kopurua
	Ikasleei jarduera osagarriak eskaini: AE 21, Hezkidetza-Berdinasuna , Amgala 2019, Elkrtrukeak, adinduekin elkarlana...	Proiektuetako arduradunak	Ikastetxeak eskaintzen dituen guztiak	Ikasturtean zehar	Hamabostero elkartuko dira proiektuak gauzatzen joateko	Proiektu bakoitzean egindakoa ikastetxean ezagutaraziko da eta baita memorian ere



HELBURUAK 4.helburua	JARDUERAK	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORA	JARRAIPIEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Ikasleek, eskola-orduetatik kanpo, konpetentziak eskura ditzaten bultzatu. <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko gaitasunak lantzen jarraitu laguntza eta errefortzuen bidetik • Zeharkako oinarrizko gaitasunak lantzeko eskaintza zabala antolatu • Ikastetxea eta bere ingurua eskaini gaitasun guztiak modu orekatu batean bereganatzen joan daitezen 	Eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak tailerren bitartez eskaini: sukaldaritza, joste, matematika ,	Zuzendaritza	Ikastetxeak eskaini ditzakeen guztiak	Ikasturtean zehar	Ikastetxeak gaitasun hauek lantzeko osatuko duen eskaintza	Sortu diren tailer kopurua eta tailer hauetara etorri den ikasle kopurua
	Ikasten ikasteko eta pentsatzen ikasteko aukera eman: ikasteknikak tailerra	Orientazio zerbitzua	Irakasleria Praktika onak	Ikasturtean zehar	Ikas Teknikak lantzeko eskaintza luzatu Premia dutenen zerrenda egin	Ikasleen etortze maila. Ikasleen hobekuntza maila
	Elkarrekin bizitzen ikasteko: Institutuak dituen proiektuetan parte har ditzaten ahalegindu	Zuzendaritza	Institutuko proiektu desberdinak	Ikasturtean zehar	Hamabostero topagune egokiak eta atseginak sortu Ikasleen parte hartzea bultzatu	Proiektu bakoitzean egindako ikastetxean ezagutaraziko da eta baita memorian ere
	Ekintzailletza bultzatzeko: ekintzailletza tailerra eskaini	Zuzendaritza	Egin eta Egin programako materiala	Ikasturtean zehar	Gaitasunak landuz joan Proiektuak pentsatzen jardun	Egin eta Ekin proiektura asmakizunak eta Negozio-Planak
	Izaten ikasteko: Eztabaida foroak, hausnarketa foroak antolatu	Zuzendaritza	Ikasleria Ikastetxeko baliabideak	Ikasturtean zehar	Ikasleriak foro hauetan parte har dezan ahaleginak egin	Landutako gaiak eta sortutako foro kopurua
	Gaitasun teknologikoa indartu: ROBOTIKA tailerra eskaini	Zuzendaritza	IKT gelak Irakasleria	Ikasturtean zehar	Tailer motzak antolatu	Egindako tailerrak eta parte hartzaileen kopurua
	Ahozkotasuna tailerra eskaini	Zuzendaritza	Ikasleria Irakaslea	Ikasturtean zehar	Eskaintzaren berri eman	Parte hartzaile kopurua



HELBURUAK 5.helburua	JARDUERAK	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORA	JARRAIPIEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
<p>Emaizten eta eskola-giroaren hobekuntza sustatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle guztien arrakasta bilatzen ahalegindu • Arrakasta honen eragileen arteko elkarlana bultzatu: familia, irakasleria, ikasleak eta ikasleen arteko laguntzak ,... • Ikastetxearekiko "afekzioa" landu. • Ikastetxea DENOK gara eta giro on sortzaileka ere denok gara. 	Premia duen ikasleria HAUSPOA arratsaldeetako laguntzetara etortzen dela ziurtatu.	Zuzendaritza	Arloko/esparruko irakasleria	Ikasturtean zehar	Jarraipena egin jarduera betetzen dela ziurtatu	Ikasle hauek %80an etorri direla ziurtatu
	Premia duten ikasleen gurasoei, arratsaldeetan etortzearen beharra adierazi.	Zuzendaritza	Bilerak Eskutitzak E-maila, ...	Ikasturtean zehar	Gurasoek sinatu beharreko konpromiso-orria jaso	Premia duten ikasleen gurasoen %100ak konpromiso-orria sinatu eta jaso
	Premiak ikasturte hasieran eta bitartean ager daitezkeenez, era malguan jokatu	Zuzendaritza	Ikasleria Irakasleria Tutoreak Familiak	Ikasturtean zehar	Ebaluazio saio bakoitzean esparru honetaz ere galdetu irakasleei	Gonbitea luzatu diegun ikasleak parte hartu dute arratsalde hauetan
	Emaizta hobeagoak lortu ditzaketen ikasleei arratsalde hauetan lekua egin irakasgaietan agindutakoa bete dezaten	Zuzendaritza	IKT gelak Biblioteka Teknologia gela Laborategia,...	Ikasturtean zehar	Ikasgela guzti hauek erabilgarri dituztela ziurtatu	Ikasturte osoan zehar ikasgela hauek zabalik eta erabilgarri egotea
	Eskola giro onaren sortzaileak guztiok garela barneratu	Zuzendaritza	Hezkuntza Komunitatea	Ikasturtean zehar	Mezu hau behin eta berriro zabaldu guztion artean	Jarrera desegokien kopurua jaitsi
	Eskola giroa hobetzen laguntzeko ikasleei erantzukizunak eta betebeharrak eskaini	Zuzendaritza	Irakasleria Ikasleria Familiak	Ikasturtean zehar	Ikasleek erantzukizunez jokatu dezaketen egoerak eskaini	Ikasleen erantzukizun maila handitzea lortu



HELBURUAK 6.helburua	JARDUERAK	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Ikasleen autonomia landu: <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleei konpetentzia hau gara dezaten, inguru eta egoerak eskaini. • Ikasleen “bidelagun” izan euren ikaskuntza prozesuetan. • Erabakiak erantzukizunez har ditzaten lagundu. • Parte hartzaile aktiboak direla siniztarazi eta HAUSPOAK euren parte hartzea behar duela barneratu 	Autonomia praktikan jartzeko egoerak eskaini: Tapperren jantokia, ikasleek eskainitako tailerrak,...	Zuzendaritza	Ikastetxearen baliabide guztiak	Ikasturtean zehar	Euren ardurak betetzen doazela ziurtatu	Hartutako konpromisoak bete dituztela ziurtatu
	Bikaintasunari begirako tailer eta egitasmoetan ikasle gehiagoren parte hartzea lortu	Zuzendaritza	Irakasleria Eskaintza Familiak	Ikasturtean zehar	Osatuz joango garen eskaintza antolatua ikasleei helarazi	Eskainitako tailerrak eman ditugu
	Premia eta plazerraren artean erabakiak hartzen lagundu (gustuko dudana eta derrigorrezkoa dudana)	Zuzendaritza	Irakasleria Ikasleria Tutoreak Familiak	Ikasturtean zehar	Ikasleriari HAUSPOA arratsaldeetan ere orientazioa eskaini	Ikasle bakoitzak Hauspoan egin behar duena egin duela ziurtatu
	Modu autonomoan, euren benetako gabeziak eta premiak ezagutzen lagundu.	Zuzendaritza	Irakasleria Ikasleria Tutoreak Orientazio Zerbitzua	Ikasturtean zehar	Ikasleekin etengabeko elkarrizketan arituko gara	Ikasleengan “jabekuntza” prozesua martxan dago
	Hauspoa arratsaldeetan hartzen dituzten erabakiekiko erantzukizunez jokatu: erabakia-ondorioa	Zuzendaritza	Irakasleria Ikasleria	Ikasturtean zehar	Ikasleekin etengabeko elkarrizketan arituko gara	Ikasleengan “jabekuntza” prozesua martxan dago



JARDUNBIDE EGOKIEN HARITIK ELORRIKO INSTITUTUAK BULTZATU NAHI DITUEN LERROAK

1. Ikasleen lanen jarraipen eta kontrol estuak egiten jarraitu nahi dugu.
2. Ikasleek egin behar dituzten lanak argi finkatzen eta euren planifikazioan laguntzen jardungo dugu.
3. Tutoretza Partekatua indartzen jarraituko dugu, ikaslearen familiari informazio helaraziz eta familiekin ditugun elkarrizketak INIKAN idatziz.
4. Aniztasuna kudeatzeko plana onartuko dugu.
5. IK/KI metodologiaz gehiago ikasten eta ikasi ahala gelan aplikatzen saiatuko gara.
6. Ikasleen ebaluazioa egiteko, ikasturtea zehar, gutxienez, 5 bilera egingo ditugu.
7. Askotariko metodologiak eta baliabideak erabiliko ditugu ikasleen emaitzak hobetuz joan daitezen.
8. Irakasleriaren ardura eta inplikazio mailari eusten saiatuko gara, ikastetxeko irakasleei arreta eta trataera egokia emanez.
9. Ikasten duen ikastetxea izaten jarraitu nahi dugu, proiektu desberdinetan parte hartuz.
10. Ikasleekiko eta irakasleekiko itxaropen handiak proiektatuko ditugu.





2018-2019. IKASTURTEAN ESKAINTZEA AURREIKUSTEN DITUGUN PROPOSAMENAK

ZER	JARDUERA	AZALPENA
Ikasleen arteko laguntzak	DBH 3 eta DBH 4ko ikasleek beste maila batzuetakoei laguntza eman Irakurketa partekatua bultzatu	“apadrinamiento”?? Hobeto dabilzanek okerrago dabilzanei lagundu
DBHko ikasleek LHko ikasleei laguntzen: LHtarrak ekimena	DBH 4ko ikasle bolondresak LHko hirugarren zikloko ikasleei lagundu gela barruan	Lehen Hezkuntzako zuzendaritzarekin hitz egin ostean euren eskaerak erantzuten saiatuko gara
DBH4ko ikasleak DBH1eko ikasleen tutoreak izan	Ikasle laguntzaileak ekimena landuko dugu.	Helburua: DBH1eko ikasle guztiek DBH4ko ikasleren bat tutore gisa izatea. Hurbileko tutorea edo tutore emozionala
Tailer erakargarriak antolatu	Lehen Sorospenak Zine Historikoa Sexu eta prebentzioa GKE (Gobernuz Kanpoko Erakundea): Erakusketak eta hitzaldiak	Tailer hauek orain jarri arren, ikasleriaren gogotik eta euren jakin minetik abiatuko gara tailerrak eskaintzerakoan
Ikasle-ohien laguntzarekin tailer berriak eskaini	Ikasle-ohi gehiago proiektura erakartzen ahaleginduko gara. Bakoitzaren gaitasunetan oinarritutako eskaintza antolatu nahi dugu Eskaintza hau Irailean zehar borobiltzea da helburua	Unibertsitatera doazen edo dauden ikasleak dira. Euren ordutegiak ezkondu behar dugu
Hezkuntza Komunitate osoari hitzaldiak eskaini	Hezkuntzarekin lotutakoak: Aniztasuna, tutoretza, hezkuntza komunitatea zentzua, ... Sexualitatea eta genero-ereduak. Harremanak Adimen emozionala. Nerabetasunaren ezaugarriak Azken urteetan sortuz doazen egoera berriak	Guraso hainbat gai hauetaz kezkatuta daude eta jakin nahi dute Seme-alabekin hitz egiteko tresnak eta aholkuak eskaini
Gurasoen laguntzaz baliatu tailerrak eskaintzeko orduan	Zaila da orain zehaztea zeintzuk izan daitezkeen	Ikasturte hasieran zehaztuko genituzke
Guraso Elkarteak eskaintako proposamenak aurrera atera	Ikasturte hasieran egingo duten eskaintza antolatzen lagundu. DBHko ikasleentzat erakargarriak izan daitezkeen ekimenen berri helarazi Guraso Elkarteari	Irailean Guraso Elkarteak luzatuko duen eskaintza bideratu eta ekimenak aurrera ateratzen saiatu.



2018-2019.IKASTURTEAN ERE ESKAINTZEA AURREIKUSTEN DITUGUN PROPOSAMENAK

ZER	JARDUERA	AZALPENA
Irakasleek eskainitakoak	<p>Gure HAUSPOA proiektuko oinarrizko egituraren agertzen diren errefortzu eta laguntza guztiak.</p> <p>Irakasgai instrumentalez gain, gizarte arloa eta zientzia arloa ere indartu nahi ditugu.</p> <p>2015-2016.ikasturtean Elorrioko Institutuak izango duen irakasleriaren arabera, prest dauden irakasleek beste esparru batzuk ere eskaintzeko ahalegina egingo dugu.</p> <p>Ikastetxeko proiektuen garapena bultzatuz astero edo hamabostero koordinatuko ditugunak: HEZKIDETZA, AGENDA 21, ...</p>	<p>Irakasleriaren parte hartzea HAUSPOA proiektuan, parte hartze aktiboa eta presentziala izango da.</p> <p>Irakasleok, laguntzak eta indartzeak emateaz gain, gustuko dugun edota ezagutza zabala dugun arloren bat ere eskainiko dugu arratsalde hauetan. Eskaintza hau irakasleen aldetik borondatezkoa izango da.</p> <p>Proiektuen garapenerako erabiliko ditugu ere arratsalde hauek, hots, Hezkuntza Komunitatearen parte hartze aktiboa sustatzeko</p>
Gurasoek eskainitakoak	<p>Gurasoen parte hartzea zabaltzen eta handitzen saiatuko gara.</p> <p>2018-2019.ikasturteko eskaintza mantentzea eta ahal bada zabaltzea izango da gure helburua.</p>	<p>Helburua, eskainitakoak mantentzea eta guraso berriak geureganatzea izango da.</p> <p>Gurasoen parte hartzea bi modutan irudikatzen dugu:</p> <ul style="list-style-type: none">✚ Beste norbaiti laguntza ematen✚ Gurasoak berak gidatuko luke tailer edo eskaintza hori
Ikasle-ohiek eskainitakoak	<p>Sexua eta prebentzioa Lehen Sorospenak Kirola Artea</p>	<p>Hemen ere ikasle-ohien partehartzea mantentzea gustatuko litzaiguke.</p> <p>Beste ikasle-ohi batzuekin ere egoteko asmoa dugu euren laguntza eskatzeko.</p>
Beste erakunde batzuk eskainitakoak: Behargintza, Sormening proiektua, ...	<p>Behargintzarekin (DURANGO) eta Aula de la Experiencia-rekin lanean jarraitu. Belaunaldien arteko ekimenak burutu.</p> <p>Sormening proiektua lantzen jarraitu: Herriko adinduekin harremanak hartu eta "Aprendizaje servicio" ekimena sortu</p>	<p>Belaunaldien arteko ekimen desberdinak burutu nahi ditugu.</p> <p>Adinduak Institutura ekarri eta elkarrengandik ikasi.</p>



Eta guzti hau lortzeko, gure lanek , orokorrean, bide hauek jorratuko dituzte:

1. Hauspoa proiektura ikasle-ohi gehiago erakarri.
2. Guraso bolondres gehiago proiektura erakarri.
3. Irakasleriaren “talentoak” aurkitzen jarraitu eta berauek proiektu honetara ekarri.
4. Ikasleriaren “talentoak” aurkitzen jarraitu eta berauek proiektu honetara ekarri.

Elorrio, 2018ko maiatza